2017-2-21

***PRENTSA TXOSTENA***

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 26. JAIAREN AURKEZPENA**

**Oihaneder Euskararen Etxea**

## AURKEZPENA

Lurdes Imaz, EHIGEko koordinatzaileak, Lurdes Errasti, Arabako Denon Eskola federazioko presidenteak eta Unai Diaz de Mendibil, Aldaialde eskolako aitak, aurkeztu dute gaur ekainaren 4ean Gasteizen ospatuko den Euskal Eskola Publikoaren Jaia.

Zabalgana eskolako ikasleek Imanol Urbietaren “Zapatain dantza” abestiaren koreografia bat egin dute aurretik.

## HELBURUAK

Euskal Eskola Publikoa hezkuntza-sistemaren oinarrizko ardatz egituratzailea izan behar dela jai giroan aldarrikatzea da 1994tik guraso elkarteok antolatzen dugun Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren helburu nagusia.

Helburu nagusi horretaz gain, eskola publikoak duen zeregina azpimarratu nahi dugu aurten gizarte kohesionatua eta integratua lortzeko. Publikotasunetik soilik lortu daiteke hezkuntza sistema inklusibo eta ekitatiboa. Zabalganako eskola publikoak horren adibide ona dira, aniztasuna aprobetxatuz eskola euskaldun, publiko, inklusibo eta anitza lortu dutelako.

## LELOA ETA IRUDIA

“Josi ta josi” da Euskal Eskola Publikoaren 26. Jaiaren leloa. Lelo honen bidez hauxe transmititu nahi dugu: aniztasunak eskaintzen duen aberastasunetik abiatuta, Euskal Eskola Publikoak elkarbizitzan oinarritutako gizarte kohesionatua eraikitzen duela, eta errespetuaren eta tolerantziaren baloreetan hezten dituela etorkizuneko belaunaldiak.

Irudiak ideia hau erakusten du, kolore desberdinetako piezak gainjarriz, oinarrizko irudi horien aberastasuna eta aniztasuna barne hartzen duten pieza berriak sortuz. Ibon Saenz de Olazagoitia diseinatzaile gasteiztarrak sortu du irudia.

**19.000 IKASLETIK GORA GASTEIZKO IKASTETXE PUBLIKOETAN**

Gasteizko ikasleen gehiengoa ikastetxe publikoetan dago eskolarizatua (40 ikastetxe, 19.000 ikasletik gora). Hauetatik lau Zabalgana auzoan daude eta 1390 ikasle dituzte guztira: Mariturri, Zabalgana eta Aldaialde lehen hezkuntzako ikastetxeak eta Zabalgana institutoa.

**EHIGE**

EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartea da. 500 guraso elkarteren ordezkaria da, Euskal Eskola Publikoaren baitan ordezkaritza handiena duen elkartea izanik.

Federazio hauek osatzen dute EHIGE:

-DENON ESKOLA (Arabako guraso elkarteen federazioa)

-BAIKARA (Gipuzkoako guraso elkarteen federazioa)

-BIGE (Bizkaiko guraso elkarteen federazioa)

-ESKOLA TXIKIAK (Gipuzkoako eskola txikien federazioa)

-IKAS-BI (Iparraldeko eskola publiko elebidunetako gurasoen elkartea)

Info+: www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus

2017-2-21

***DOSSIER DE PRENSA***

**PRESENTACIÓN DE LA 26ª FIESTA DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA**

**Oihaneder Euskararen Etxea**

## PRESENTACIÓN

La coordinadora de EHIGE, Lurdes Imaz, la presidenta de Denon Eskola, Lurdes Errasti y Unai Diaz de Mendibil, padre de la escuela pública Aldaialde, han presentado hoy en una rueda de prensa celebrada en Oihaneder Euskararen Etxea, la 26ª edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, que se celebrará en Vitoria-Gasteiz el próximo 4 de junio.

Alumnas y alumnos de la escuela Zabalgana han realizado previamente una coreografía de “Zapatain dantza” de Imanol Urbieta.

## OBJETIVOS

El objetivo principal de la Fiesta de la Escuela Pública, que organizamos las asociaciones de madres y padres desde 1994, es reivindicar el papel de la escuela pública como eje vertebrador y prioritario del sistema educativo vasco.

Además de ese objetivo principal, en esta edición queremos poner en valor el papel de la escuela pública para lograr una sociedad cohesionada e integrada. Solo desde lo público se puede lograr un sistema educativo inclusivo y equitativo. Las escuelas públicas de Zabalgana son buen ejemplo de ello, ya que están aprovechando la diversidad para lograr una escuela euskaldun, pública, inclusiva y diversa.

## LEMA E IMAGEN

“Josi ta josi” es el lema de la 26ª edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca. Con este lema queremos transmitir la idea de que partiendo de la riqueza que ofrece la diversidad, la escuela Pública Vasca Vasca construye una sociedad cohesionada basada en la convivencia, y prepara a las futuras generaciones en valores de respeto y tolerancia.

La imagen refleja esta idea con piezas de diferentes colores que, al superponerse, crean nuevas piezas que incluyen la riqueza y la diversidad de las que la componen. Esta imagen ha sido creado por el diseñador gasteiztarra Ibon Saenz de Olazagoitia

**MÁS DE 19.000 ALUMNAS Y ALUMNOS EN LOS CENTROS PÚBLICOS DE VITORIA-GASTEIZ**

La mayoría del alumnado de Vitoria-Gasteiz está escolarizado en centros públicos (40 centros, más de 19.000 alumnos y alumnas). Cuatro de estos centros públicos se encuentran en el barrio de Zabalgana y cuentan con un total de 1390 alumnos y alumnas. Se trata de las escuelas de primaria Mariturri, Zabalgana y Aldaialde, y el instituto Zabalgana.

**EHIGE**

EHIGE ES LA Confederación de madres y padres de la Escuela Pública Vasca. Con sus 500 AMPAs asociadas, es la organización con más representación de la Escuela Pública Vasca.

EHIGE está formada por estas federaciones:

-DENON ESKOLA (Federación de AMPAs de Araba)

-BAIKARA (Federación de AMPAs de Gipuzkoa)

-BIGE (Federación de AMPAs de Bizkaia)

-ESKOLA TXIKIAK (Federación de eskola txikiak de Gipuzkoa)

-IKAS-BI (Federación de AMPAs de los centros públicos bilingües de Iparralde)

+ info: www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus

EHIGE Gurasoen Elkartea | Ronda 27, 1. Ezk. | 48005 Bilbao | T. 94 416 93 60 | www.ehige.eus | ehige@ehige.eus